

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	WEB-ZERBITZUEN ADMINISTRAZIOA ETA AUDITORETZA	Iraupena	90
		Baldintzatua	
Kodea	UF1272		
Lanbide-arloa	INFORMATIKA ETA KOMUNIKAZIOAK		
Lanbide-eremua	Sistemak eta telematika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Interneteko zerbitzuen administrazioa	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Web-zerbitzuen administrazioa	Iraupena	180
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Web-zerbitzariaren softwarearen instalazioa eta konfigurazioa	Iraupena	90

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0485_3 WEB-INGURUNE BAT KUDEATZEKO SOFTWAREA INSTALATZEA, KONFIGURATZEA ETA ADMINISTRATZEA gaitasun-ataleko LB3 eta LB4 lanbide-burutzapenekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Web-zerbitzariak kudeatutako edukiak, egindako sarbideak eta errendimendua administratzea, erakundearen diseinu-zehaztapenei eta segurtasun-politikari eta indarreko legediari jarraiki.

EI1.1 Edukien eguneratze-prozedurak eta prozeduren arabera bertsioak kontrolatzeko prozedurak deskribatzea. profilak, taldeak eta rolak, besteak beste, segurtasun informatikoko barne-arauetako zehaztapenei jarraiki. profilak, taldeak eta rolak, besteak beste, segurtasun informatikoko barne-arauetako zehaztapenei jarraiki.

EI1.3 Web-zerbitzariaren eta Web-zerbitzariak sistema informatikoan dituen osagarrien errendimendua optimizatzeko prozedurak azaltzea.

EI1.4 Web-estatistiken zerbitzari baten funtzioa eta ezaugarri nagusiak deskribatzea.

EI1.5 Kasu praktiko batean, Web-zerbitzu bat ekoizten ari gara; honako lan hauek egin behar dira:

- Web-zerbitzariko edukiaren antolamendua definitzea.
- Bertsioak eguneratzeko eta kontrolatzeko prozedurak ezartzea.
- Web-zerbitzariaren errendimendu-parametroak aztertzea.
- Zerbitzaria erabilera-aldaketetara eta kontingentzia-planetara egokitzeko jardun-planak ezartzea.

EI1.6 Web-zerbitzarian argitaratutako informazioan eragina duen indarreko lege-araudia azaltzea.

A2: Aplikazioen zerbitzaria sistema informatikoan instalatzea, konfiguratzea eta administratzea, Web-zerbitzuetarako datu-hornitzaile gisa.

EI2.1 Aplikazioen zerbitzari batek dituen funtzioak eta konfigurazio-parametroak deskribatzea.

EI2.2 Aplikazioen zerbitzari batean aplikazioak txertatzeko prozedura azaltzea.

EI2.3 Kasu praktiko batean, datu-baseetarako konexioa duen Web-zerbitzu bat instalatu behar dugu, eta aplikazioen zerbitzari bat dugu; honako lan hauek egin behar dira:

- Aplikazioen zerbitzariaren softwarea eta datu-baseetara sartzeko moduluak txertatzea.
- Multzoaren errendimendua optimizatzeko parametroak konfiguratzea.
- Web-zerbitzuaren aplikazioa zerbitzarian txertatzea, behar bezala abiatzen dela, funtzionatzen duela eta gelditzen dela egiaztatuta.
- Bestelako zerbitzu eta aplikazioekiko -lokalekiko edo urrunekoekiko- komunikazioa konfiguratzea eta egiaztatzea.
- Aplikazioen zerbitzariaren instalazioa ziurtatzea.
- Akatsak gertatzen direneko eragiketa- eta berreskurapen-dokumentazioa sortzea.

A3: Datu-baseak kudeatzeko sistemetara sartzeko metodoak hautatzea, instalatzea eta konfiguratzea, Webgune dinamikoetan horiek dituzten baliabideak erabiltzeko xedez.

EI3.1 Datu-baseak kudeatzeko sistema ohikoenetara sartzeko metodoak eta horiek Web-zerbitzari batera konektatzeko prozedurak deskribatzea.

EI3.2 Hiru geruzako Web-arkitektura baten elementu guztien arteko loturak eta komunikazio-mekanismoak deskribatzea.

EI3.3 Kasu praktiko batean, datu-baseetarako konexioa duen Web-zerbitzu bat instalatu behar dugu; honako lan hauek egin behar dira:

- Datu-baseetara sartzeko moduluak txertatzea.
- Datu-baseetara sartzeko sistemaren errendimendua optimizatzen duten parametroak konfiguratzea.
- Bestelako zerbitzu eta aplikazioekiko -lokalekiko edo urrunekoekiko- komunikazioa konfiguratzea eta egiaztatzea.
- Datu-baserako konexioa eta Web-zerbitzuaren aplikazioa ziurtatzea.
- Akatsak gertatzen direneko eragiketa- eta berreskurapen-dokumentazioa sortzea.

- A4: Web-zerbitzu baten ustiapenean auditoretza-prozedurak eta gorabeherak konpontzeko prozedurak aplikatzea.
- EI4.1 Web-plataforma baten errendimenduan erabakigarriak diren elementuak deskribatzea eta sailkatzea.
- EI4.2 Zerbitzuari dagokionez emandako kalitatea zenbatzeko eta neurtzeko prozedurak azaltzea.
- EI4.3 Web-zerbitzuen ekoizpen-inguruneetako gorabeherak diagnostikatzeko prozedurak azaltzea.
- EI4.4 Web-zerbitzuen ekoizpen-inguruneetako gorabeherak konpontzeko teknikak xehetasunez deskribatzea.
- EI4.5 Kasu praktiko batean, Web-zerbitzu bat ekoizten ari gara; honako lan hauek egin behar dira:
- Prozedura-eskuliburuetan definitutako eragiketak aldiari behin eta behar bezala gauzatzen direla ziurtatzea.
 - Zerbitzuaren errendimendua eta eskuragarritasuna neurtzeko mekanismoak ezartzea.
 - Zerbitzuaren kalitate-parametroak aztertzea, zehaztapenen betetze-maila zehazteko.
 - Aurkitutako urritasunak zuzentzeko neurriak aplikatzea.
- EI4.6 Kasu praktiko batean, gorabehera-egoeran dagoen Web-zerbitzu bat dugu; honako lan hauek egin behar dira:
- Funtzionamendu txarraren kausa identifikatzea ahalbidetzen duten diagnostiko-teknikak eta -erremintak aplikatzea.
 - Ahalik eta zerbitzu-mailarik handienari eusteko eta gerta litezkeen kalteak murrizteko presako euste-neurriak aplikatzea.
 - Arazoa behin betiko konpontzeko eta gorabeheraren aurreko egoerara itzultzeko prozedurak ezartzea.
 - Gorabeheraren kausa aztertzea eta antzeko beste egoeraren bat prebenitzeko edo denbora-tarte laburragoan konpontzeko prozedurak ezartzea.
- EI4.7 Estatistiken zerbitzari baten instalazioan eta konfigurazioan egin beharreko urratsak zehaztea.

Edukiak

1. Web-zerbitzariaren edukien administratzailea.

- o Edukiak eguneratzeko prozedurak:
 - FTP
 - FTPS
 - SFTP
 - Edukien kudeaketarako sistemetara txertatzea (CMS)
- o Edukien antolamendua.
- o Bertsioen kontrola.
- o Baimenak kudeatzeko teknikak:
 - Profilak.
 - Taldeak.
 - Rolak.
- o Web-zerbitzariaren errendimendua optimizatzeko prozedurak:
 - Optimizazio-teknikak.
 - Zerbitzuaren kalitateari eta usagarritasunari buruzko parametroak.
 - Optimizazio-probak.
 - Erreminta espezifikoekin Web-karga sortzeko simulazioa.
- o Estatistiken zerbitzariak:
 - Logeko fitxategi baten egitura eta eremuak.
 - Saioareen kontzeptua.
 - Saioetarako jarraipen-mekanismoak.
 - Logen analizagailu sinple baten instalazioa.
- o Web-edukien argitalpenarekin lotutako lege-araudia:
 - Logak gordetzea.
 - LOPD.

2. Web-zerbitzuen aplikazioen zerbitzaria.

- o Funtzioen eta konfigurazio-parametroen deskribapena: Jokalekuaren arabera gomendatutako parametroak.
- o Ezarpen-prozedurak:
 - Abiatze-, funtzionamendu- eta gelditze-egiaztapena.
 - Instalazioa egiaztatzea.
- o Eragiketa-dokumentazioaren azterketa eta sorkuntza.

3. Datu-baseak kudeatzeko sistemetarako sarbidea.

- o Web-aplikazioetan gehien erabiltzen diren datu-baseen motoreak (ORACLE, SQL Server, MySQL):
 - Sarbide-protokoloak.
 - Segurtasun-ereduak (IP bidez, erabiltzaile-pasahitz bidez, segurtasun integratu bidez, horien konbinazio bidez, eta abar)
- o Sarbide-liburutegiak:
 - ODBC, JDBC, DSN-Less ODBC, OleDb.
 - Sarbide-moduluak txertatzea (ODBC kontrolagailuak instalatzea, DSN bat sortzea, eta abar)
- o 3 geruzako Web-arkitektura bateko komunikazio-mekanismoak:

- SOAP, RPC, WebServices.
- Datu-baserako konexioaren egiaztapena.

4. Hainbat zerbitzaritan banatutako arkitekturen deskribapena.

- 3 geruzako eredua.
- Akatsekiko tolerantzia.
- Karga-banaketa.
- Saio-egoeraren biltegiak. (ASP.NET state service eta abar)
- Cache-biltegiak. (Memcached eta abar)
- Proxy zerbitzariak.

5. Zerbitzarien eta aplikazioen eguneratzeen kudeaketa.

- Garapen- eta erreproduzio-ingurunea.
- Eguneratzeak zabaltzeko prozedurak.

6. Web-zerbitzuen gaineko gorabeheren audiotretza eta konponketa.

- Zerbitzuari dagokionez emandako kalitatearen neurketa:
 - Kalitate-parametroak.
 - Zerbitzuaren eskuragarritasuna.
 - Zerbitzua emateari buruzko akordioak (SLAk).
- Web-aplikazioetako ahulezien kudeaketa:
 - Web-aplikazioetan ahuleziak detektatzeko erremintak (adibidez, Nikto).
- Ekoizpenean gertatutako gorabeheren diagnostikoa:
 - Monitorizazioa.
 - Errendimendua neurtzeko erremintak (Windows sistemaren kontagailuak, apache mod_status, eta abar)
- Gorabeherak konpontzeko teknikak:
 - Euste-neurriak. Workaround-ak.
 - Kausa/jatorriaren azterketa.
- Arazoen kudeaketa proaktiboa.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urte baino gehiagokoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF1271: Web-zerbitzariaren softwarearen instalazioa eta konfigurazioa.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Interneteko zerbitzuen administrazioa